



EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

Txertakuntza berezi bat

›Nominalizazioa (Aditz-izena)

NOLA ERABILI

Txertakuntza berezi bat aditz-izena

Esku artean daukazun bideoan bi atal nagusi bereiz daitezke. Lehenengoan, modu laburrean, aditz-izena zer den eta nola osatzen den erakusten da. Bigarrenean, zodiakoaren hainbat zeinu aitzakiatzat hartuta, aditz-izenari zenbait deklinabide-kasu nola erantsi erakusten da.

Lehenengo atala: aditz-izena zer den. 03:13

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, atalari dagozkion orrialdeak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak landu eta ikasleen zalantzak argitu.

Bigarren atala: Zodiakoa. 06:46

Bideoan zodiakoaren zazpi zeinu jartzen dira jokoan, Aquarius, Piscis, Aries, Tauro, Geminis, Cancer eta Leo. Zeinu bakoitzaren azalpenak ematerakoan, deklinabide-kasu bat hartzen da kontuan.

PROPOSAMENA

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Falta diren zeinuen testuak osatu, falta diren deklinabide-kasuak kontuan hartuta. Ikusi falta direnak hurrengo orrian.

Falta diren zeinuak	Falta diren deklinabide-kasuak
 Virgo	<i>Zertarako?</i> <i>-t(z)eko</i>
 Libra	<i>Zertatik?</i> <i>-t(z)etik</i>
 Scorpius	<i>Zerk?</i> <i>-t(z)eak</i>
 Sagittarius	<i>Zeri?</i> <i>-t(z)eari</i>
 Capricornus	<i>Zertaraino?</i> <i>-t(z)eraino</i>

Hori guztia eginda bideoa ikusiko dugu.

Txertakuntza berezi bat

aditz-izena

Aditz-izena, izenak berak adierazten duen bezala, izen bihurtutako aditza dugu eta izaera bikoitza du: alde batetik, izena da; baina, bestetik, aditzaren zenbait ezaugarri ere gordetzen ditu. Izan ere, aditza izen bihurtzean, perpaus osoa izen-sintagma bihurtzen dugu, nolabait.

	Liburua <i>izen-sintagma</i>	hartu dut <i>aditz-sintagma</i>	
	Anderren etxean dagoen gizonari eramateko <i>izen-sintagma</i>	hartu dut <i>aditz-sintagma</i>	
Bigarren adibidean, aditza izen bihurtzean, perpaus osoa bihurtu dugu izen: <i>Anderren etxean dagoen gizonari eramateko</i> perpausak izen funtzioa betetzen du. Aditz-izena eratzeko nahikoa da aditzoinari <i>-t(z)e</i> eranstea.			

egin + -t(z)e = egite
sentitu + -t(z)e = sentitze
joan + -t(z)e = joate

etorri + -t(z)e = etortze
jaiki + -t(z)e = jaikitze
ikusi + -t(z)e = ikuste

Aditz-izena, izena den aldetik, norantz eta norentzat kasuetan izan ezik, gainerakoetan deklinatu egin daiteke.

NOR: ikustea
NORI: ikusteari
NONDIK: ikustetik

NORK: ikustek
NOREN: ikustearen
NONGO: ikusteko

Perpauzaren objektu zuzena *NOR* kasuan doa beti; hala ere, aditza izen bihurtzen bada, euskalkien arabera bi eratara jokatu ohi da: mendebaldeko euskalkietan *NOR* kasua erabili ohi da; ekialdekoetan, berriz, *NOREN* kasua.

Jon pozteko egin dut.	Jonen pozteko egin dut.
Eskuak berotzetik nator.	Eskuen berotzetik nator.
Aita ikustera noa.	Aitare n ikustera noa.

Partizipioa ere izen gisa erabil daiteke. Kasu horretan perpauzak ekin-tza burutua adieraziko du, eta hainbatetan *izan*-ek lagundurik joan ohi da.

Azkar ibiltzeagatik apurtu zait.	Azkar ibili izanagatik apurtu zait.
Azkar ibili da.	Azkar ibili zen.

Pena handia ematen dit antzerkira ez joateak .	
Ez doa antzerkira.	
Pena handia ematen dit antzerkira joan ez izanak .	
Ez da antzerkira joan	

Esan dugu lehenago, aditz-izena, beste edozein izen bezala, deklinatu egin daitekeela. Ikus dezagun.

-t(z)earekin 06:46

-t(z)earekin forma aditz-izena *NOREKIN* kasua mugatu singularrean deklinatuz lortzen da.

HOROSKOPOA



urtarrilaren 23tik otsailaren 22ra



osasuna

Ez omen daukazu nahikoa gorputza **gaztigatzearekin**, e? Aquarius? Munduko gorputzik ederrena izan nahi duzu, ezta? Horrela jarraitzen baduzu, hemendik gutxira, kiroldegiko beste kideei ura eta esku oihalak **eramatearekin** asetu beharko duzu zure grina hori.



maitasuna

Bera **ikustearekin** konformatu beharko duzu, Aquarius, Beste batekin joan baita. Haren argazkia **puskatzearekin** ez duzu ezer konponduko. Atera zaitetz, eta bilatu ordezeko bat.



dirua

Etxean **egonda** aspertzea baino ez duzu lortuko, eta dirua lehen bezain urrun edukiko duzu. **Pentsatzearekin** bakarrik hurbilduko zaizula espero baldin baduzu, oso oker zabilta.

-t(z)eaz / t(z)ez 18:49

-t(z)eaz forma aditz-izena **ZEREZ / ZERTAZ** kasuaren mugatu singularrean deklinatuz lortzen da.

HOROSKOPOA



otsailaren 23tik martxoaren 22ra

♋ osasuna

Gorputza osasuntsu **edukitzeaz** arduratzen zara, Piscis, eta hori oso ondo dago. Baina, noiz arduratuko zara burua altzari egokiz **hornitzeaz**? Gorputza **zailtzeaz batera**, bide batez, **garunak** mugi ditzakezu. Zurea da gorputza, zurea burua, **biak zaintzeaz** arduratu behar duzu.

♋ maitasuna

Esatez, maitagarria zara Piscis, ez dizut ukatuko; **egitez**, ordea, nahikoa baldarra. **Izatez**, beraz, ehuneko berrogeita hamar maitagarria zara eta ehuneko berrogeita hamar baldarra.

♋ dirua

Zor dizutena **jasotzeaz** ederki arduratzen zara, Piscis; ez, ordea, zorrak **kitatzeaz**. Dirua **batzeaz aparte**, ez duzu besterik egiten. Bizitza alferrik **galtzeaz gain**, lagunek alde egingo dizute.

-t(z)eaz batera formak perpaus nagusiko aditzaren ekintza eta mendeko perpausarenarena aldi berean gertatzen direla adierazten du.

Gorputza zailtzeaz batera, bide batez, garunak mugi ditzakezu.

-t(z)ea 11:13

-t(z)ea formak, *zer?* galderari erantzuten dio eta hainbat aditzekin erabili ohi da.

*debekatu gomendatu kostatu
bururatu ahaztu erabaki*

HOROSKOPOA



martxoaren 21etik apirilaren 21era

osasuna

Aries, gorputzaren ahotsa adi-adi entzutea komeni zaizu. Badakit kirola gogor **egitea** gustatzen zaizula, baina noizean behin kontuz **ibiltzea**, eta ariketa fisikoari mugak **jartzea** medizina ezin hobea duzu.

maitasuna

Aries, Aries. Zer egin duzu? Maite zaituztenekiko loturak **berreskuratzea** eta zure bihotzeko azukre koxkorrekin **berriro hitz egitea** lortu behar duzu. Maitasunaren jakituria **gutxieste**a ez da egokia zauden egoerari aurre egiteko.

dirua

Aries gaixoa, ez duzu nahi duzuna **egiterik** lortuko. Izarrak eta planetak kontra dauzkazu. Datorren urtera arte itxaron beharko duzu. Aurten behintzat ez duzu dirua **irabazterik** izango. Dena dela, ez etsi, ezer ez da betiko izaten eta.

Adjektiboari izan aditza gehituz lortzen diren formekin menpeko aditzak *-t(z)ea* hartu ohi du. Era honetako perpausen erabilera oso hedatua dago.

Maitasunaren jakituria gutxiestea ez da egokia
zauden egoerari aurre egin nahi badiozu.

t(z)ea ez da polita.
t(z)ea ez da ona.
t(z)ea ez da aproposa.

Batzuetan, ezezko perpausetan bereziki, aditz-izenak partitiboa hartzen du.

Aries gaixoa, ez duzu nahi duzuna **egiterik** lortuko.

Halere, forma hau ezin da erabili aditz-izena perpausaren subjektua bada.

Nahi duzuna ez **egitea** penagarria da.

-t(z)eagatik 14:11

-t(z)eagatik forma *zergatik?* galderari erantzuteko erabiltzen da. Aditzi-izenari *-gatik* erantsiz eratzen da.

HOROSKOPOA



apirilaren 23tik maiatzaren 22ra



osasuna

Tauro, zaindu eztarria. Behar baino tonu altuagoan **kantatzeagatik** eta edari hotzegiak **edateagatik** gertatzen zaizu. Ez zara tenore izateko jaio.



maitasuna

Presaka **ibiltzeagatik** galdu duzu bihotzeko maitea, Tauro. Presaka **ibiltzeagatik** eta hurbilketa behar bezala ez **prestatzeagatik**. Hurrengoan tentu handiagoz ibili.



dirua

Hiru txanpon **irabaztearren** edozer egiteko gauza zara, Tauro. Ez izan hain zekena. Itsulapiko hori.

-t(z)earren mendebaldeko euskalkiei dagokie, batez ere. *-t(z)eagatik* formaren esanahi beretsua dauka. Batzuetan, helburuzko perpausak egiteko ere erabil daiteke.

Hiru txanpon **irabaztearren** edozer egiteko gauza zara, Tauro.

helburuzkoa

Hiru txanpon **irabaztearren** galdu duzu sinesgarritasuna.

kausazkoa

-t(z)en 16:00

-t(z)en formak *zertan?* galderari erantzuten dio eta hainbat aditzekin erabili ohi da.

HOROSKOPOA

II

maiatzaren 22tik ekainaren 21era

II osasuna

Geminis, jana **zaintzen** hasi behar duzu. Denetik jatea ongi dago, baina, neurria **hartzten** ikasi behar duzu. Egunero kilometro bat **ibiltzen** eta bost minutuz giharrak **luzatzen** saiatu behar duzu.

II maitasuna

Geminis, geminis, **hizketan** ematen duzu denbora guztia. **Igerian** ikasi behar duzu. Zure bihotzeko kutuna sirena bat da. Olatuekin **jolasean** aurkituko duzu maitasuna.

II dirua

Geminis koitadua, zeure buruarekin pozik **egoten** ikasi behar duzu. Handinahikeriak **baztertzen** eta beharrezko duzunarekin **bizitzen**.

Aditz bereziak

Zenbait aditz-lokuziok *zertan?* galderari erantzuteko, izena hartzen dute oinarri, dagokion atzizkia berari erantsiz.

Geminis, geminis, **hizketan** ematen duzu denbora guztia.
Igerian ikasi behar duzu.

HOROSKOPOA



ekainaren 22tik uztailaren 22ra



osasuna

Cancer, ondotxo dakizu, neuk **esateke**, zer egin behar duzun. Medikuak agindutako ariketak egiten **hasteke** zaude oraindik. Joan den hilean erabaki zenuen erregimenari **ekiteke** zaude oraindik. Eta, etxeko obra **amaitzeke** daukazu. Altxa burua eta ekin berandu baino lehen.



maitasuna

A **diskide berria** aurkitu duzu eta **bihotzeko arazoak konpontze**ar dauzkazu. Pozik ikusten zaituzte astroek. Zure maitasun arazoak **amaitze**ar dauzkazu. Zorionak.



dirua

Zeneukan guztia **galtzeko zorian** egon zara, Cancer. Bolada txarra igaro duzu, ito **beharrean** ibili zara. Txiripa bati **esker**, gailurra ukituko duzu, eta zure kontu guztiak bere onera etorriko dira. Aupa Cancer.

-t(z)eke forma aditz-izenari *-ke* atzizkia erantsiz eratzen da, eta gabetasuna adierazten du. Erabilera mugatu samarra dauka, gehienetan, haren orde, partizipioa gehi gabe erabiltzen da.

Cancer, ondotxo dakizu, neuk **esateke**, zer egin behar duzun.

Cancer, ondotxo dakizu, neuk **esan gabe**, zer egin behar duzun.

-t(z)earrek izan/legon eta ukan/eduki aditzekin azaltzen da eskuarki. Gertatzeko puntuan dagoen baina gertatu ez den ekintza bat adierazten du.

Adiskide berria aurkitu duzu eta bihotza **konpontzear** daukazu.

-t(z)eko zorian egiturak, lehenago ikusi dugun *-t(z)ear* egiturak bezala, gertatzeko puntuan dagoen baina gertatu ez den ekintza bat adierazten du.

Zeneukan guztia **galtzeko zorian** egon zara, **Cancer**.

-t(z)era 21:04

HOROSKOPOA



uztailaren 23tik abuztuaren 21era

osasuna

Leo, erosketak egitera joan behar duzu. Jan ganoraz, bestela antzarak ferratzera bidaliko zaituzte. Argalegi egotera kondenatu duzu zeure burua, eta hori ez da batere ona.

maitasuna

Leo, Leo, afaltzen gonbidatzen bazaitu, ez esan ezetz. Zurekin egon nahi du eta ez bazara baietz esaten ausartzen, bakar-bakarrik geratuko zara.

dirua

Leo, ai! Leo dirua egitera kondenaturik zaude. Diruz ongi horniturik bizitzera gatzigatu zaituzte astroek

Ikus ditzagun -t(z)era eskatzen duten aditz batzuk.

Leo, erosketak **egitera** joan behar duzu.

Zenbait euskalkitan -t(z)eraren ordezt -t(z)en erabiltzen da.

Leo, Leo, **afaltzen** gonbidatzen bazaitu, ez esan ezetz.